

## Ez dago sendatzerik federik ez bada

---

*Todavía convaleciente de una enfermedad y habiendo estado todo este mes en manos de los médicos, esta vez se tornan los papeles y es Juan Garmendia Larrañaga quien viene a darnos las recetas.*

Oraindik gaixotasun batetik irteten dagoela, eta hilabete oso hau medikuen eskuetan egon ondoren, behingoz paperak aldatu eta Juan Garmendia Larrañaga datorkigu errezetak ematera.

Ez da erraza, lerro gutxi batzuetan, Garmendia Larrañagak urteetan egindako etnografiaren lanen berri ematea, sartu ezinezkoa delako orrialde haue-tan. Baina guri dagokigunez, liburu bat dugu beti buruan:

*«Rito y Fórmula en la Medicina Popular Vasca».*

Liburu honetan belaunaldiz belaunaldi erabilitako errezetak biltzen dira, eta hauetxek izan dira hain zuzen elkarrizketa honetara bultzatu gaituztenak.

**Galdera:** Gaixo egon eta petrikillo edo sasimedikuarengana joan behar-reen, doktoarengana jo duzu. Bigarren honen errezetak hobeak dira?

**Erantzuna:** Ni zientziarengana joan naiz, hemengo petrikilloa hezurretakoa delako. Baina petrikilloarengana joan izan naiz hezurretako problemarekin.

*Nola azalduko zenuke herrikoi medikuntz honen iraupena baserrietako bizitzan? Mediki faltagatik ote?*

–Bai, baina baita ere garai batean kaminorik ez zen eta hurbileneko herria ere urruti zen eta bakardadeko bizitza zen baserrikoa. Dena den izan dira kalean ere herrikoi medikuntzan aritu izan direnak, baina eszeptzioak dira. Kale munduan beste era batera bizi gara.

*Herrikoi medikuntzak etenaldi bat ezagutu du gaurko gizartean?*

–Bai, galtzen ari da orain. Jende gaztea sendagilearengana joaten da gehiago, baina hala eta guztiz ere aintzinako formula hauek jarraitzen dute zenbait lekutan, belarrak oinarri direla.

*Baina medikuntza hau botanikaren ezagutzan oinarritzen da soilik edo erabiltzen al da formula kimiko edo magikorik?*

–Denak ez dira belarrekin. Batzuk errezoekin, hainbeste aldiz Ave Maria esan,... beste batzuk sapo bat ontzi batean sartu eta hil arte bertan izan etab. Nik egin dudana sendagintza herrikoa izan da, baina benetan interesatu zaidana ritoekin eta esaerekin loturikoa zen... sorgintasan pixkat duten gauzeekin. Bereztasuna dutenak.

*Zenbatekoa da erritua eta sinismena eta zenbatekoa sendatzeko ahalmena?*

–Bizkotxo bat bezala zatitzea zaila da. Askotan benetan sendatzen duenak ere rito bat izaten da, beste batzuk oso garbi ritoa dira soilik. Ritoa dagoenean fedea sartzan da jokoan eta sinistu egin behar da. Badakizu, «la fe mueve montañas». Eta formula hauek, baita kuranderismoak ere, naturan dute fedea, zientzian baino gehiago. Beraz ez dago sendatzerik federik ez bada. Nik asko ezagutzen ditut formula guzti hauek probatu izan dituztenak. «Nik hau egin izan nuen eta kendu egin zait» edo «nik hau egin izan dut eta ez zait kendu» esan didatenak. Belarrekin gertatzen da askotan indar sendatzaile gehiago dutela San Juan goizean jasotakoak, San Juan goizeko urak bezala. Urtean zehar baino indar sendatzaile gehiago izaten du.

*Ba al da ezberdintasunik gainontzeko herrietako formuletkin?, edo formula berdina erabiltzen dira, izen ezberdinak jarritz.*

–Askotan gertatzen da belar batzuk hemen badirala eta beste leku askotan ez dirala. Eskuetan ditugun belarrekin mugitzen gara, baina batzuk badira han-hemenka ezberdinak.

*Izango dira gaixotasun baterako formula ezberdinak eta alderantziz, gaixotasun askotarako formula bakarra ezta?*

–Noski baietz. Euskal Herrian bertan ere diferentziak badira gaixotasun berezi bat sendatzeko, baina aldi berean formula berdina dira toki askotan.


*Teknikak ikastea bakarrik da edo benetako ahalmena izan behar da herriko medikuntzarako ?*

–Hemen ere denetarik dago, eta adibiderik onena Saludadorea da. Saludadorea familia bateko zazpigarren semea da eta pertsona honek rabia edo amorrua sendatzeko indarra zuen. Eldoingo XVIII. mendeko agiri batean Udalteak Saludadoreari ordaindutako kopuru baten akta agertzen da. Beraz, garai hartan ofizio bezala ezagutzen zen Saludadorea. Orain asko galdu da baina nere umetan ere norbaitetaz esaten zen: «Hori saludadorea dek».

## KABATXOA KENTZEKO SEI BIDE

Kabatxua edo «verruja» tratatzeko era asko daude:

- Zapo bizia artu eta pote baten sartu eta tapa itxi. Gero, kabatxua duna dabillen inguruan ontzia zintzilikatu lista batetik, agan sartuta dagon iltzetik. Zapoa desegintzen ari dan bezela, kabatxua ere izkututzen dijao
- Zazpi ostiral errezkaran urdai azal batekin, beti batekin, kabatxua igurtzi
- Kabatxua dunaren oiaren azpian zapo bizi bat ontzi zulorik gabeko tapa dun baten barnean utzi. Zapoa akabatzerako kabatxua izkututzen da
- Auzan (Ultzama Baillaran), Kalitx izenarekin ezagutzen dan iturria arkitzen da, eta ango urarekin kalitxek garbitu aal dan maizena eta gero legortzen utzi. Biramonean berdin egin eta onela jarraitu sendatu arte. Kalitxek txikitzen joaten dire eta izkutatu
- Zapo bizia ontzi baten sartu eta ontzi au zulo txo batzuekiko tapa batekin itxi. Kabatxua daukanari ontzi au bere zapo biziarekin erakutsi, baiña, bereala, gaxoak ez dakin tokin gorde. Kabatxua dunak, ez jakiñean, zapoaren aurretik gutxienez egunean bein pasa bear du, zapoa akabatu eta legortu arte. Au legortzerako kabatxua izkutatu egiten da
- Sagar bat artu eta lau puska egin. Puska auekin kabatxua ondo igurtzi eta iñork ikuste eztitun toki batera bota. Au bein bakarrik egiten da.



Ez dago sendatzerik federik ez bada / Juan Garmendia Larrañaga entrevistado por Oier San Martín. - En : *Guipúzcoa Médica = Medikuen Ahotsa : Revista del Colegio Oficial de Médicos = Sendagileen Elkarteko Aldizkaria*. - Donostia - San Sebastián : Colegio Oficial de Médicos de Gipuzkoa. - N° 2 zenb. (1994), pp. 8-9. - OC. T. 6, p. 113-115